

KONTROL MOZIOA

ULIAKO PLAN BEREZIA DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxeak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko abenduaren 12an Lurralde Garapen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2010ean Udalbatzan onartutako Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak (HAPO) agintzen zuen Landa Parke (F.20) gisa definitutako “Uliako Parkea” barrutiaren Plan Berezia 2012rako egin behar zela, gutxi-gora-behera 3,45 Km²-ko azalera barnebiltzen duena. Zentzu honetan, aurreko legegintzalditik, Ingurumen eta Hirigintza departamenduek, bai teknikoki, bai politikoki, eskuz esku Plan Bereziaren idazketari ekin zioten.

Legegintzaldi honetan, udal taldeek batzordeetan hamaika aldiz galdetu eta interpelatu dugu plan berezi honen onarpenaren inguruan. Udal Gobernutik hasieratik erantzun zitzaigun prestutasuna zuela Uliaren ordenazio eta babeserako dokumentu honen idazketa amaitzeko.

Horiek horrela, 2016ko uztaileko udalbatzarrean, Ekologiako zinegotziak esan zuen plan berezi honen onarpena iraila-urrirako izango zela. Epe hori pasatu ondoren, azaroko batzordeetan adierazi zitzaigun Donostialdeko Lurralde Zatitako Planaren onarpena dela-eta, Uliako Plan Berezia baldintzatuta gelditzen zela eta agian Pasaiako Udalarekin Pasaiako itsasadar edo bokaren ordenazioa adostu beharko zela, horrek eragin zezakeen atzerapenarekin. Zentzu honetan, azaldu zen barne kontsulta juridiko bat abiatua zuela Udal Gobernuak zalantza hori argitzeko. 2016ko abenduan adierazi zitzaigun kontsulta juridikoa Udalean argitu beharrean, Eusko Jaurlaritzari bideratuko zitzaiola, aste horretan bertan, Plan Berezia praktikoki amaituta zegoela adieraziz eta erantzuna jaso bezain laster informatuko zitzaigula. 2017ko urtarrileko batzordeetan galdera eginda, ordea, erantzun zaigu Eusko Jaurlaritzari ez zaiola inolako kontsultarik luzatu eta Udalean barne desadostasunak daudela plan hau onartzeko; argitu ez zaigun arren zein motatako desadostasunak diren.

Horiek horrela, gardentasun ikuspegitik, Udal Gobernuak Udalbatzako taldeekin ez duela garbi jokatu eta ez zaigula zintzotasunez informatu uste dugu. Eta kudeaketa ikuspegitik, Udal Gobernu hau, planaren idazketa oso aurreratuta jaso zuen arren, urte eta erdiko epean

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

ez da plan berezi honen idazketa amaitzeko gai izan, eta hori kudeaketa txar baten seinale da. Gainera, gogorarazi behar dugu 2010eko H.A.P.O.ak Uliako Plan Berezia natur-babes helburuekin onartzea behartzen duela; Uliako 2013tik Kontserbazio Berezikoko Eremua (ZEC) izendatua izan dela Europar Batasuna eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik, eta udal taldeek 2015eko azaroan, 2016ko uztailan eta urte bereko azaroan ere, kontrol mozien bidez, babes eta ordenazio dokumentuaren onarpena eskatu dugula udalbatzarrean.

Horregatik guztiagatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio lehenbailehen konpon ditzala barne desadostasunak Uliako Parkea barrutiaren Plan Bereziaren idazketa amaitzeko; Europaren aldetik Kontserbazio Berezikoko Eremu izendatua izan den hiriko gunek berde honek dagokion babesa izan dezan eta Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak agindutakoa bete dadin.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia